AZKEN URTEETAN JENDE ASKO ATXILOTU DUTE PRESOEI ELKARTASUNA ADIERAZTEA LEPORATUTA, ETA HOIETAKO MORDO BAT ESPETXERATU ERE BAI. PRESOEN ARGAZKIAK DEBEKATU EGIN DITUZTE, WEB ORRIAK ITXI, KARTELAK KENDU, MARGOKETA ETA MURALAK EZABATU, MANIFESTAZIOAK DEBEKATU, PRESOEN ALDEKO ANTOLAKUNDEAK LEGEZ-KANPOKOTU...

PRESOEN INGURUNE GUZTIA ERASOTUZ DENBORA PASA OSTEAN, ARAZOEN MUINERA JOTZEA IRUDITU ZAIE APROPOSENA. HORREGATIK NAHI DUTE...

# EPPK ILEGALA!


ZULOAK
POLIZI ESPAINIAR ETA FRANTSESAK, ERA KOORDINATUAN BURUTURIKO OPERAZIOAREN BIDEZ, 700 ZULO INGURU TOPATU DITUZTE. DIRUDIENEZ EPPK-KO KIDEAK ARI ZIREN, UNE HAUETAN BERTAN, ZULO HAUEK ERABILTZEN...
47
46
HEMEN, NERE ATZEAN, IKUS DITZAKEZUE HOIETAKO BI ZULO...
BARNE MINISTROAK ESAN DUENEZ, KOLPE GOGORRA IZAN DA PRESO TALDEARENTZAT.


ENTRENAMENDU EREMUA
NERE ATZEAN IKUSTEN DUZUEN HAU EPPK-K BEREN ENTRENAMENDUETARAKO ERABILTZEN ZUEN GUNE SEKRETUA DA, POLIZIAK AURKITU EGIN DUEN ARTE. KORRIKA, PASIATZEN ETA TARTEKA FUTBOLEAN ERE ARITZEN ZIREN, ITURRI POLIZIALEN ARABERA...


IBILGAILUAK
IKUSTEN DUZUEN GARABIAK ERRETIRATZEN DUEN AUTOBUS HORI DA EPPK-ko KIDEEK ESPETXEZ ESPETXE BIDAIATU ETA BERAIEN ARTEAN HARREMANA MANTENTZEKO ERABILTZEN ZUTENA...
GUARDIA CIVIL
ENTZUTEGI NAZIONALEKO EPAILEAK FROGA GISA KONFISKATZEKO AGINDU DU.


EGOITZAK
CENTRO PENITENCIARIO
DURANTE AÑOS HAN CAMPADO A SUS ANCHAS, PERO YA BASTA DE TANTA IMPUNIDAD! LES HEMOS PRECINTADO ESTA SEDE Y HAREMOS LO MISMO CON OTRAS CINCUENTAYPICO QUE TIENEN DISPERSADAS POR TODA LA GEOGRAFÍA ESPAÑOLA!
ACASO CREÍAN QUE NO NOS ATREVERÍAMOS?
?!!...


LOGOTIPOA
EUSKAL PRESO POLITIKOEN BATZARRA:
ETA HAU DA, JASATEN ARI GAREN ERREPRESIOA DELA ETA, KOLEKTIBOAREN LOGO BERRI BEZALA PROPOSATZEN DUGUNA...
BERRIA? ORAINGOAREN BERDINA DA ETA!
EPPPK
BERDINA EZ, ANTZEKOA. "P" BAT GEHIAGO DAUKA. HORRELA HAU ERABILI AHALKO DUGU PRESO POLITIKOAK IZATEAGATIK BERRIRO ATXILOTZEN GAITUZTENEAN: EUSKAL PRESO POLITIKO PRESOEN KOLEKTIBOA!
EPPPK


DESEGITEA
BARNE MINISTROAREN ARABERA ERABAT DESEGINTZAT JO DAITEKE EPPK PRESOEN KOLEKTIBOA. BEREN ZULO GUZTIAK ETA ENTRENAMENDU EREMUAK AURKITUAK IZAN DIRA, ETA GARRANTZITSUENA: BEREN EGOITZA GUZTIAK ITXI ETA HAIETATIK KANPORATUAK IZAN DIRA.


ONGI ETORRI GUZTIAK!
DE VERDAD QUE NO LO ENTIENDO... PARECEN ESTAR CONTENTOS... ES COMO SI QUISIERAN QUE LES DESARTICULÁRAMOS EL COLECTIVO DE PRESOS!



**Mikel Orbegozo Etxarri**
(Donostia, 1979)

**Atxilotze data:** 2005-02-17

**Egun dagoen espetxea:**
Centro Penitenciario de Badajoz
Carretera de Olivenza, km. 7,3
06071 Badajoz